

artikulu nabarmenak
artículos destacados

2012



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

urria



Apodaka, Marije; Quintana, Gotzon; Ugarte, Bea. Partaidetza: gurekin bada, izango da.

Artikulu honen egileek proposamen didaktikoa eskaintzen dute parte hartzean eta elkartasunean oinarrituta. Parte hartzearen definizioa ematen dute, parte hartzeko baldintza nagusiak zehazten dira eta ibilbide didaktikoaren inguruko gogoeta metodologikoak aztertzen dira.

Hik hasi, 171. zk., 2012ko urria, 23-29. or.



Raudsepp, Lennart; Neissaar, Inga. Brief report: Relationships between physical activity and depressive symptoms in adolescent girls.

Ikerketa honetan neska nerabeek (12-13 urte) jarduera fisikoan izandako aldaketen eta depresio-sintomen arteko lotura aztertzen da. Estoniako hiri-ingurunekeo 277 neska neraberen kasuak aztertu ziren ikerlanean. Emaitez aditzera ematen dutenez, aurkako lotura dago jarduera fisikoaren eta depresio-sintomen artean, eta ez du harremanik gorputz-masaren indizearekin. Emaitez depresio-sintomak murriztuko dituzten eta nerabeen jarduera fisikoa areagotuko duten esku-hartzeak diseinatzea gomendatzen dute.

Journal of Adolescence, 35. lib., 5. zk., 2012ko urria, 1399-1402. or.



Meneses, Carmen (...et al.) Concurrencia de comportamientos de riesgo entre adolescentes españoles.

Ikerlan honetan Espainiako nerabeek dituzten arrisku-jokaeren bateratzea aztertzen da. Hona azterturiko jokaerak: jarduera sexuala, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa, indarkeriazko jokaerak eta ziklomotorrak eta motorrak gidatzean izandako jokaerak. 13 eta 18 urte bitarteko 4.091 nerabek osatzen dute lagina (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokion adin-tartea). Lortutako emaitzen arabera, lau arrisku-soslai daude. Lau soslai horien artean badago alderik, hainbat ezaugarri soziodemografikori erreparatuta: sexua, kurtsoa, familiaren ekonomiari buruzko pertzepzioa eta etnizitatea. Emaitzak eztabaidatu egiten dira eta prebentziorako iradokizunak eskaini.

Revista internacional de sociología (RIS), 70. lib., 3.zk., 2012ko iraila-abendua, 665-689 or.